

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK


II. Gazteria Planaren zirriborroa aurkeztu da 150 ekintza baino gehiagorekin

Lanketaren partaidetza-prozesuan parte hartu duten 3.000 gazte baino gehiagoren ekarpenak jasotzen ditu

Asteartea, 2016.eko uztailak 26

2017-2019ko II. Gazteria Planaren

lanketaren lehen fasetik sortutako zirriborroa aurkeztu da gaur goizean, prentsaurrekoan. Agiri horrek 150 ekintza baino gehiago jasotzen ditu, sustatzaileen hitzetan, "proposamen integral eta zeharkakoa" da, eta "gazteriaren garapena errazteko helburuarekin" osatu da, "baliabideak eta aukerak emanaz haien emantzipazioa eta banakako nahiz taldekako garapena errazte aldera". Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaile Ruben Goñik eta Gazteriako zuzendariorde Adela Gonzalezek agiriaren ildo nagusiak aurkeztu dituzte.



Lehen testu hau egiteko 3.182 gazteren iritzia jaso da inkesten bitartez.

Zirriborro hau partaidetza-prozesu oso baten produktua da. Hala, lehen testu hau egiteko 3.182 gazteren iritzia jaso da inkesten bidez, 120 parte-hartzaile izan dira hainbat udalerritan antolatutako tailerretan, hamaika mahai tekniko sortu dira –Hezkuntza, Enplegu, Etxebizitza, Osasun, Lurralde Antolamendu, Kirol, Gizarteratze eta Aniztasuna, Berdintasun, Kultura, Partaidetza eta Bake eta Bizikidetzako mahaiak– eta bertan ordezkatura daude: Nafarroako Gobernu Departamentuak, gazte-elkarteak, kolektiboak eta Nafarroako Gazteria Kontseilua, eta organo horrek Nafarroako bi unibertsitateak barnean sartu ditu. Gainera, mahai teknikoetan euskara zeharka landu da Euskarabide erakundearen babesarekin.

Planaren diseinuaren oinarria Gazteriaren Foru Legea da, eta hark gazteen autonomiaren alde egiteko agintzen du berdintasuneko gazteria-politikak sustatzeko, honako hauek berrmatuko dituztenak: norberaren garapenerako baldintza onenak, gazteen sustapena eta partaidetza soziala, gazte konprometituak, arduratsuak, osoak eta aktiboak lortzeko helburuarekin.

Programa-akordioak eta 2015eko gazteriaren diagnostikoak, halaber, bideratu dute zirriborro honen lanketa, ekainaren 30ean aurkeztu zen Departamentu arteko Batzordeak egindako bilera batean eta dagoeneko eskuragarri dago Gobernu Irekiko webgunean herritarrek kontsulta ahal

dezaten.

Lau ardatzetan antolatutako 150 ekintza

Lanketa egiteko gazteen iritziak jaso ondoren, ondorengo eskaerak hauteman ahal izan ziren: prestakuntza eta informazio gehiago, laguntzen eta diru-laguntzen falta, genero-berdintasunaren aldarrikapena eta aisialdi osasungarria ahalbidetzea.

Gazteekin egindako inkesten eta tailerren bidez lortutako erantzunetatik abiatuz eta mahai teknikoek egindako ekarpenetatik abiatuz, zirriborroak 150 bat ekintza jasotzen ditu, eta lau ardatzetan antolatu dira:

- Emantzipazioa: enplegua, etxebizitza, hezkuntza.
- Banakako prozesua: osasuna, kultura eta kirola.
- Sozializazio-prozesua: partaidetza, bizikidetza, aisia eta astialdia eta mugikortasuna.
- Banakako eta taldekako identitatea garatzea: aniztasuna, gizarteratzea, berdintasuna eta lurralde-garapena.

Prozesu parte-hartzailearen bigarren fasea

Prozesu parte-hartzaileak Gazteria Planaren II. fasean izango du jarraipena, eta bertan Eskualdeko Foroak deituko dira (zortzi Nafarroako zenbait eskualdetan), planaren proposamenaren kontsulta errazteko asmoz. Topaketa horiek irailean eta urrian egingo dira Irurtzunen, Lekarozen, Lizarran, Tafallan, Tuteran, San Adrianen, Zangozan eta Iruñean.

Gainera, mahai teknikoen sektoreko bilerak sustatuko dira, eta hainbat ardatzetako berariazko gaiak jorratuko dituzte; eztabaida bat egitea beharrezkotzat jotzen den gaien gainean herritarrei irekitako saio erabakitzaile bat antolatuko da, eta partaidetza publikoko prozesuan lortutako emaitzak itzultzeko fase bat programatuko da, Gazteriaren Zuzendariordetzako webgunean argitaratuko den tarteko txosten batean jasoko direnak.

Horrek guztiak II. Gazteria Plana behin betiko onartzea ekarriko du, abendurako iragarria, nahiz eta hark izaera malquari eutsiko dion, eta hiru urteetan zehar eguneratu ahalko da.